

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

2135

EBAZPENA, 2013ko apirilaren 19koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, arte plastiko eta ikusizkoak, musika eta arte eszenikoak 2013. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo zabaltzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Etxepare Euskal Institutua (aurrerantzean EEI) Sortzeko eta Arautzeko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen 3.b) artikulua ondoko helburua xedatzen du aipatutako Institutuarentzat: «Euskal Kultura bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adiera-molde-tan kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta hedatuz».

Bestalde, EEIren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak xedatzen du Institutu horren eskumenekoa dela Euskal Kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzea eta hedatzea. Dekretu honek bere 19. artikulua 2. paragrafoan dio Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko arloak musika, arte eszenikoak, ikusizko arteak, zinea, arkitektura eta diseinua hartzen dituela bere baitan. Bestalde, artikulua horren f) idatzi-zatiak Institutuaren funtzioen artean aipatzen du euskal sorkuntza nazioartean ezagutzera emateko kultura-eragileei laguntzeko programak diseinatzea.

Hori dela eta, EEIri jarduteko arlo gisa adierazi zaizkion eskumenen barruan, interesgarritzat jo da euskararen eremu geografikotik kanpo arte plastiko eta ikusizkoen, musikaren eta arte eszenikoen inguruan antolatzen diren jardueretan parte hartzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da arte plastikoak eta ikusizkoak, musika eta arte eszenikoak 2013. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo sustatu eta zabaltzeko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. artikulua.– Deialdiko modalitateak:

II. Kapituluak: Arte plastikoak eta ikusizkoak.

III. Kapituluak: Musika.

IV. Kapituluak: Arte Eszenikoak: antzerkia eta dantza.

3. artikulua.– Diru baliabideak.

1.– Deialdi honetarako gehienezko zenbateko orokorra hirurehun eta hirurogeita hamabi mila (372.000) eurokoa izango da, eta modalitate bakoitzari dagokion zenbatekoa honakoa izango da:

a) Arte plastiko eta ikusizkoetarako berrogeita hamabost mila (55.000) euro.

b) Musika biretarako ehun eta berrogeita bost mila (145.000) euro.

c) Arte eszenikoetarako ehun eta hirurogeita hamabi mila (172.000) euro, honela banatuta:

– Antzerkirako ehun eta berrogeita bi mila (142.000) euro.

– Dantzarako hogeita hamar mila (30.000) euro.

2.– Modalitate bakoitzean adierazitako zuzkidura dena dela ere, eskabiderik ez dagoelako edo baldintzak betetzen ez dituztelako, ezarritako diru-kopurua agortzen ez bada, modalitate baterako diru-laguntzen zenbatekoa handitu ahal izango da beste modalitatearen soberakinaren bitartez, betiere delako modalitate hori artean erabaki gabe badago.

4. artikulua.– Diru-laguntzak emateko modua, zenbatekoa eta mugak.

1.– Ebazpen honen bidez emango diren diru-laguntzak lehiaketa bitartez esleituko dira. Diru-laguntzak horrela emateko, aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, 10. artikuluan finkatutako aukeraketa eta balorazio-irizpideen arabera hurrenkera jakin batean jartzeko.

Baloraziorik altuenak lortzen dituzten eskabideetatik hasita esleituko dira diru-laguntzak, lortutako puntuazioaren arabera, harik eta horretarako diru-baliabideak amaitu arte.

2.– Diru-laguntza esleitzeko orduan, eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuan EEIk diruz laguntzen dituen gastuen atala soilik hartuko da kontuan.

3.– EEIk diruz laguntzen dituen gastuak:

Dagokion jaialdi edo jardueran parte hartzekoak: joan-etorria, ikuskizuna jendaurreko egingo den tokiko muntaia-gastuak, eszenografia edo materialaren garraioa, ostatua eta dietak. Artisten katxetak eta nominak ez dira diruz lagunduko. Ez da gastu amortizagarririk diruz lagunduko.

Antzerki denboraldietan, promozio gastuak ere diruz lagunduko dira.

4.– Laguntzen zenbatekoak:

a) Ostatu eta otorduetarako gehienezko gastuak, pertsonako eta eguneko: Espainian, hirurogeita hamabost (75) euro ostaturako eta berrogeita bi (42) euro dietarako. Espainiatik kanpora, ehun eta hogeita (120) euro ostaturako eta hirurogeita hiru (63) euro dietarako.

b) Ondorengo dietak onartuko dira: emanaldi egunetakoak, eta joan-etorrietarako beste egun bat.

Arte plastiko eta ikusizkoen erakusketen kasuan, soilik joan-etorrietako, eta muntaia eta inauguraziorako dietak onartuko dira. Astebeteko dietak onartuko dira gehienez ere.

c) Automobila erabiliz gero, zero koma hogeita bederatzi (0,29) euro km-ko gehi autopista eta parking-a. Furgoneta erabiliz gero, zero koma berrogei (0,40) euro km-ko gehi autopista eta parking-a. Kilometro kopurua kalkulatzeko, diru-laguntza eskaera egin duen pertsona fisiko edo juridiko pribatuaren sozietate egoitza hartuko da abiapuntutzat.

d) Ibilgailua alokatua denean, alokairuaren faktura, erregaia, autopista eta parking-a.

e) Hegazkina, trena edo bestelako garraio publikoren bat erabiliz gero, soilik maila arrunteko txartela onartuko da.

5.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publikoek helburu berbererako emandakoekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

5. artikulua.– Pertsona edo entitate onuradunak.

1.– Ebazpen honek araututako diru-laguntzen onuradun izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Pertsona fisiko edo juridiko pribatua izatea eta sozietate-egoitza edo helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan izatea. Zabaldu nahi den obraren edo lanaren komunikazio-hitza euskara denean, sozietate-egoitza edo helbidea euskararen eremu geografikoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak ere aurkeztu ahal izango dira.

b) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denerako alta emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, egingo den jarduerari dagokion epigrafean, arte plastiko eta ikusizkoak modalitatean salbu.

2.– Eskaera onartua izateko, dagokion jaialdi, feria edo birako emanaldiak hartuko dituzten areto guztien kontratua, gonbidapena edo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

3.– Ez da onartuko nagusiki kapital ekarpen publikoa duten entitate pribatuen, fundazioen, «Ondasunen erkidego» izaerakoekin eta dagokion modalitateko sektorearen jarduerarekin lotura zuzenik ez duten elkarteen eskaerarik.

4.– Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzetara aurkeztu laguntza publikoak eskuratzeko zigor administratibo edo penalik dutenek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekua dutenek ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrena urratuz sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku hori dutenak barne direla.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo bere erakunde autonomiadunek entitate onuradunari ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren bat eman badiote eta hori itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren bateko izapideak egiten ari badira, ezinbestekoa izango da prozedura hori amaitzea diru-laguntza esleitu eta ordaindu ahal izateko.

6. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Etxepare Euskal Institutuari dagokio deialdi honen bidez emango diren diru-laguntzak kudeatzea.

EEIk proiektuen garapenaren jarraipena egingo du, eta onuraduna behartuta egongo da horretarako eskatutako ikuskapen- edo informazio-eskaerei erantzutera.

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epeak eta modua.

1.– Bira edo proiektuko eskabide bana aurkeztuko da. Eskatzaile berak eskabide bat baino gehiago aurkeztuko badu, nahikoa izango da eskatzaileari buruzko administrazio-dokumentazioa behin aurkeztea.

2.– Modalitate guztietan, eskabideak ebazpen hau EHAAan argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira.

a) Arte plastiko eta ikusizkoen modalitatean eta musika biren modalitatean eskabideak aurkezteko epea uztailaren 15ean amaituko da.

b) Antzerkia modalitatean, eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau EHAAan argitara eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

c) Dantza modalitatean aurkezteko epea irailaren 6a artekoa izango da.

3.– Aurkez daitekeena honakoa izango da: 2013ko urtariletik abenduaren 31ra arte egitekoak diren jarduerak.

4.– Ebazpen honen babesean aurkeztuko diren eskabideak eranskinetan ezarritakoari jarraituz egingo dira (I-Arte plastiko eta ikusizkoak, II-Musika, III-Arte eszenikoak). Eranskinak Etxepare Euskal Institutuaren web orrialdean eskuragarri egongo dira:

<http://www.etxepareinstitutua.net>

5.– Laguntzaren eskabidea ondorengo helbidean aurkeztu beharko da: Etxepare Euskal Institutua. Prim kalea 7. 20006 Donostia. 30/1992 Legean ezarritako beste edozein bide ere erabil daiteke eskabideak aurkezteko (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

8. artikulua.– Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen diren dokumenturen bat falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egitea galduko duela.

9. artikulua.– Balorazio-batzordeak.

1.– Modalitate bakoitzerako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, balorazio-batzordeak osatuko dira. Batzordeak honela osatuko dira:

a) Lehendakaria: EEIko zuzendaria edo eskuordetzen duen pertsona.

b) Bokalak: 3-5 kide, EEIko zuzendariak izendatuko ditu, modalitate bakoitzean adituak diren gizon-emakumeak eta administrazio-ko teknikarien arteak.

c) Idazkaria: Batzordearen idazkari-lanak EEIko teknikari batek egingo ditu, zuzendariak izendatua izango da, eta bileretan hitzez bai, baina botorik gabe jardungo du.

2.– Balorazio-batzordeko kideak izendatzerakoan Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko da.

3.– Balorazio-batzordeen osaera EEIko zuzendariak ebatziko du eta EHAAan argitaratuko da. Nolanahi ere, errespetatu egingo da azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan parte ez hartzeari eta errefusatzeari buruz ezarritakoa.

10. artikulua.– Eskaerak aztertzeko irizpideak eta ebazpen-proposamena.

1.– Balorazio-batzordearen zeregina izango da aurkeztutako eskaerak ebaluatzea eta ebazpen-proposamena egitea Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari.

2.– Aurkeztutako proiektuak aztertu eta baloratzeko irizpide-ardatz nagusiak honako hauek izango dira:

a) Eskatzailearen ibilbide profesionala: kidea/k, egonkortasuna, azken urteetako ekoizpena. Puntuazioaren % 20ra arte.

b) Jarduera garatuko den espazioaren ezaugarriak, nazioarteko oihartzuna edo biraren garrantzia. Emanaldi kopurua ere baloratuko da (musika-biren modalitatean gehienez 15 emanaldi hartuko dira kontuan). Puntuazioaren % 50ra arte.

c) Proiektuak arte eta kultura aldetik duen garrantzia: lanaren kalitatea, euskara, autore edo taldearen proiektzioa. Puntuazioaren % 30era arte.

3.– Balorazioan lor daitezkeen puntuen % 50 lortzen ez duten proiektuak ez dira diru-laguntza esleitzeko zerrendan sartuko.

11. artikulua.– Ebazpenak.

1.– EEIko zuzendariari dagokio balorazio-batzordeek aurkeztutako ebazpen-proposamenak aztertu eta ebazpenak ematea.

2.– Ebazpena Etxepare Euskal Institutuaren web orrialdean argitaratuko da, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5.b) artikulua onduerarako.

3.– Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatzen hasita, gehienez lau hilabete epean eman eta jakinaraziko dira modalitateetako ebazpenak. Epe hori jakinarazpenik gabe igarotzen bada, eskaerak ez direla onartu ulertuko da, 30/1992 Legearen 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

12. artikulua.– Diru-laguntzaren onarpena.

Ebazpena Etxepare Euskal Institutuaren web orrialdean argitaratzen den egunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean onuradunak berriaz eta idatziz uko egiten ez badio, diru-laguntza onartu egin dela ulertuko da.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Diru-laguntza adierazitako helburu zehatzerako erabiltzea, eta diruz lagundutako jarduera 2013. urtean burutzea.

2.– Esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa edozein delarik ere, diru-laguntzaren onuradun orok diruz lagundutako egitasmoaren eta gastuen gauzatzea justifikatu behar du. Justifikazioari ekiteko, diru-laguntza esleitzeko orduan erabilitako gastu-aurrekontu onartua erabiliko da.

3.– Ebazpena eman aurretik eskabidean aurkeztutako proiektuan edo aurrekontuan aldaketaren bat eginez gero, horren berri idatziz ematea EEIri. Berri hori jasotzen duenetik, EEIk 15 egun balioduneko epea izango du erantzuteko. Erantzunik ez bada, aldaketa onartutzat joko da.

4.– Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematea, hala eskatuz gero.

5.– Esleipen-ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera, katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta argitaratzen diren gainerako material grafiko zein soinudunetan, EEIren logoaren bitartez babesa jaso dutela adieraztea.

6.– Onuradunak, diruz lagundutako proiektuarekin lotutako materiala eta irudiak erabili ahal izateko baimena bermatzea EEIri, horrek informazioa hainbat euskarritan zabal dezan.

14. artikulua.– Justifikazioa eta ordainketa.

1.– Ebazpen honetan ezarritako diru-laguntzen onuradunek lagundutako jarduera amaitu edota ebazpena jaso eta bi hilabeteko epearen barruan aurkeztu beharko dituzte jarraian zerrendatzen diren agiriak. Abenduan egindako jardueren kasuan, betiere 2014ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztuko dituzte agiriak.

a) Burututako jarduera osoaren memoria-balorazioa.

b) Eranskinetan jasotzen den justifikaziorako eredu-orria jarraituz zehaztuko dira egindako gastuak, eta halakorik balego, jasotako beste diru-laguntzak.

c) Gastuen justifikaziorako, aurrekontu onartuan Etxepare Euskal Institutuak diruz laguntzen dituen gastuen atala soilik hartuko da kontuan. Salbuespenez, emandako diru-laguntzak atal horren % 50 gainditzen ez badu, emandako diru-laguntzaren zenbatekoari dagozkion egiaztagiria aurkeztuko dira, eta horrekin batera gastu eta diru-sarreraren balantzeari buruzko zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Hala ere, EEIk hala eskatzen badu, onuradunak aurkezturiko aurrekontuaren arabera guztirako diru-zenbatekoa osatzeko falta diren egiaztagiria EEIren esku jarri beharko ditu.

d) Diruz lagundutako gastuen egiaztagirien zerrenda ordenatua (fakturak, ticketak...). Fakturak eskatzailearen izenean egon beharko dute, eta indarrean dagoen araudi fiskalaren arabera baliozkoak izan beharko dute. Bestelako monetatan egindako fakturen kasuan, gastua eurotan zenbatekoa izan den adierazi beharko da, horretarako erabilitako kanbio-tasa adieraziz.

e) Gastuak justifikatzeko jatorrizko fakturak edo horien fotokopiak, EEIk edo Eusko Jaurlaritzak konpultsatuak. Ez dira onartuko konpultsatzeko fakturak haien fotokopiak aurkezten ez direnean.

f) Dietak justifikatzeko, aski izango da dagokion eranskinean jasotzen den taula bete eta sinatzearekin. Ostatu gastuak fakturekin justifikatuko dira.

g) Norberaren ibilgailuan egindako bidaietarako, nahikoa izango da onuradunak dagokion eranskineko kilometraje taula bete eta sinatzearekin. Honela kalkulatu da kilometro kopurua: jarduera egiten deneko herritik pertsona fisiko edo juridiko pribatu eskatzailearen sozietate egoitzara edo establezimendura dagoen joan etorriko distantzia. Bira bateko emanaldiak denboran jarraian egiten badira, emanaldi bat egiten den tokitik hurrengo emanaldiaren tokirainoko distantzia ere kontuan hartuko da. Bidesari eta parking gastuen ticketak edo fakturak aurkeztu beharko dira.

h) Diruz lagundutako jarduera dela eta sortutako katalogo, programa, iragarpen-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinudunen ale bana.

i) Eskabidea aurkeztu ondoren helburu berbererako jasotako bestelako diru-laguntzen zerrenda. EEIk emandakoaz gain beste diru-laguntzarik jaso ez bada, hori horrela dela adierazten duen zinpeko aitortzea aurkeztuko du, onuradunak izenpetua.

j) Dagokion modalitatearen eranskinetan justifikaziorako dokumentazio zerrendan eskatutako beste edozein agiri.

2.– Diru-laguntzaren justifikazioa behar bezala gauzatu ez bada edo dena delako zioarengatik laguntzaren zenbatekoa gutxitzea edo kentzea badagokio, EEIko zuzendariak banakako likidazio-ebazpena emango du, egiaztagiriak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabeteko epean. Hala badagokio, bi hilabeteko epea izango da itzultzeko, xedapena jasotzen denetik.

3.– Ebazpen honetan oinarrituz emandako diru-laguntzen ordainketa bi zatitan egingo da honako prozedurari jarraituz:

% 75 onuradunaren onarpena jasotzen den egunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean

% 25 jarduera amaitu, justifikazioa egin eta gehienez ere sei hilabeteko epean.

15. artikulua.– Ez betetzeak.

1.– Ebazpen honetan edo maila orokorragoko aginduetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

2.– Emandako diru-laguntza guztia edo zati bat ebazpen honetan aurreikusitako jarduera ez den besteren batean erabiltzea.

3.– Hala badagokio, diru-laguntzaren likidazio-ebazpenean zehaztutako diru-kopurua ez itzultea, horretarako emandako epean.

4.– Halakorik gertatu dela egiaztatzen bada, ez betetzea gertatu dela ulertuko da eta, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitakoari jarraiki, pertsona edo entitate onuradunak itzuli egin beharko dizkio EEIri jasotako diru-kopuruak eta horiei legez dagozkien interesak.

II. KAPITULUA

ARTE PLASTIKOAK ETA IKUSIZKOAK

16. artikulua.– Xedea.

2013. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo arte garaikideko erakusketak edo gertakizunak antolatzea eta/edo beraietan parte hartzea (lehiaketak, jaialdiak, erakusketak, egoiliar gisako proiektuak...), betiere horietan EAEn bizi diren egileen lanak erakusten direnean.

Xede honetarako, ez dira aintzat hartuko urteko programazioak, ezta ohiko jarduntzat hartzen direnak ere. Hortaz, ohiz kanpokotzat jo daitezkeen proiektu edo ekimen zehatzak onartuko dira soilik.

17. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Modalitate honetarako gehienezko zuzkidura berrogeita hamabost mila (55.000) eurokoa izango da.

2.– Eskatzaileek nahi beste eskabide aurkez ditzakete, baina jasotako diru-laguntza guztien batura ez da inoiz izango hamabi mila bostehun (12.500) euro baino handiagoa.

a) Ez da inbertsio amortizagarririk onartuko.

b) Joan-etorri bati dagozkion gastuez gain, egoiliar proiektu bakoitzeko eman daitekeen gehienezko zenbatekoa lau mila eta berrehun (4.200) eurokoa izango da eta hilabeteko gehienez ere 700 eurokoa.

18. artikulua.– Egoiliar proiektuak.

Egoiliar proiektutzat honakoa hartuko da: gutxienez bi asteko iraupena izango duen prestakuntza artistikoa hobetzeko egonaldia. Egoiliar zentroak helburu horretarako prestatutako tokia izan beharko du, eta egonaldiaren helburuak, baldintzak, zerbitzuak, ikasgaiak, arduradunak eta gainerako zehaztasunak egoiliar zentroko arduradunak sinatutako ziurtagiri edo dokumentu batean jasoko dira.

Eskatzaileak dagokion agiri edo ziurtagiri hori aurkeztu beharko du dirulaguntzaren eskabidea-rekin batera. Agiri horretan jasotako baldintzen arabera, hala badagokio, balorazio batzordeak doitu egingo du emango den laguntza.

III. KAPITULUA

MUSIKA

19. artikulua.– Diru-baliabideak.

Honakoa izango da diru-laguntza hauetarako aintzat hartuko den modalitatea: musika-birak.

1.– Modalitate honetarako gehienezko zuzkidura ehun eta berrogeita bost mila (145.000) eurokoa izango da.

2.– Eskatzaileek nahi beste eskabide aurkez ditzakete, baina jasotako diru-laguntza guztien batura ez da inoiz izango ondoko kopurua baino handiagoa: hamabi mila bostehun (12.500) euro taldeko.

3.– Musika-birako jaso ahal izango den gehienezko zenbatekoa honakoa izango da:

– 5.000 km arteko tokietarako: sei mila eta bostehun (6.500) euro.

– 5.000 km-tik haragoko tokietarako: hamabi mila eta bostehun (12.500) euro.

4.– Artikulu honetan ezarritako distantziak honelaxe kalkulatzeko dira: emankizuna egiten deneko herritik pertsona fisiko edo juridiko pribatu eskatzailearen egoitzara zuzenean dagoen distantzia. Bira bateko emanaldiak denboran jarraian egiten badira, emanaldi bat egiten den tokitik hurrengo emanaldiaren tokirainoko distantzia ere kontuan hartuko da. Distantzi hori neurtzeko, ondorengo, web orrialdea erabiliko da:

<http://www.distancefromto.net/>

20. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Deialdi honen ondorioetarako honakoa hartuko da musika-biratzat: euskararen eremu geografikotik kanpo, urte osoan, gutxienez 5 kontzertu jotzea 3 plazatan.

2.– Ondokoetarako ez da diru-laguntzarik emango:

a) Guztira 15 partaide baino gehiago dituzten taldeek egindako bira nahiz kontzertuak.

b) Herriko festetako programetan sarturiko emanaldi eta berbenetarako.

c) Kanean kontraturik gabe eta antzeko egoeretan egiten diren emanaldietarako.

IV. KAPITULUA

ARTE ESZENIKOAK: ANTZERKIA ETA DANTZA

21. artikulua.– Onuradunen berariazko baldintzak.

Nahitaezkoa izango da profesional gisa aritzea antzerkigintzan edo dantzagintzan.

Antzerkiaren modalitatean, kultura elkarte edo fundazioaren izaera duten eskatzaileek ezingo dituzte diru-laguntzak jaso.

22. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Modalitate honetarako gehienezko zuzkidura ehun eta hirurogeita hamabi mila (172.000) eurokoa izango da:

a) Antzerkirako ehun eta berrogeita bi mila (142.000) euro.

b) Dantzarako hogeita hamar mila (30.000) euro.

2.– Eskatzaileek nahi beste eskabide aurkez ditzakete, baina jasotako diru-laguntza guztien batura ez da inoiz izango hamabi mila bostehun (12.500) euro baino handiagoa.

3.– Distantziaren arabera, honakoa izango da antzerki-bira edo dantza-bira bakoitzeko jaso ahal izango den gehienezko zenbatekoa:

– 5.000 km arteko tokietarako: sei mila eta bostehun (6.500) euro.

– 5.000 km-tik haragoko tokietarako: hamabi mila eta bostehun (12.500) euro.

4.– Artikulu honetan ezarritako distantziak honelaxe kalkulatu dira: emankizuna egiten deneko heritik pertsona fisiko edo juridiko pribatu eskatzailearen egoitza edo establezimendura zuzenean dagoen distantzia. Bira bateko emanaldiak denboran jarraian egiten badira, emanaldi bat egiten den tokitik hurrengo emanaldiaren tokirainoko distantzia ere kontuan hartuko da. Distantzi hori neurtzeko, ondorengo, web orrialdea erabiliko da:

<http://www.distancefromto.net/>

5.– Gehienezko zenbatekoa antzerki-denboraldi bakoitzeko zortzi mila (8.000) eurokoa izango da.

23. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Aintzat hartuko diren formatuak honakoak izango dira: antzerki-bira, antzerki-denboraldia eta dantza-bira.

a) Antzerki-biratzat: gutxienez 2 emanaldi egitea; betiere, 24. artikuluan aipatutako baldintzak betez gero.

b) Antzerki-denboraldizat:

Antzoki berean gutxienez 8 emanaldi egitea jarraian. Antzokiak gutxienez 150 eserleku izan beharko ditu.

Antzokiaren webguneak ondorengoak izan beharko ditu derrigorrez: antzezlanei eta konpainiei buruzko informaziodun programazioa, antzokiari buruzko informazioa eta sarrerak erosteko on-line zerbitzua.

Ez da diru-laguntzarik emango eskola-emanaldietarako.

c) Dantza-biratzat: urte osoan 3 emanaldi egitea beste horrenbeste plazatan.

d) Salbuespen modura, antzerki- edo dantza-azoka profesional batean parte hartzea biratzat onartuko da.

2.– Ez da diru-laguntzarik emango ondokoetarako:

a) Izaera amateurra duten erakustaldi edo jaialdietarako.

b) Guztira 15 partaide baino gehiago dituzten taldeek egindako biretarako.

c) Herriko festetako programetan sarturiko emanaldi eta berbenetarako.

d) Klean kontraturik gabe eta antzeko egoeretan egiten diren emanaldietarako.

24. artikulua.– Antzerki biretarako diru-laguntza jasotzeko baldintzak:

1.– Hiru baldintza hauetako bat bete beharko du:

a) III-XI. eranskinean zerrendatzen diren jaialdi edo azoketan parte hartzea.

Zerrenda horretatik kanpoko jaialdi edo azoketan parte hartzeko proposamenak ere aztertuko dira, betiere profesionalak badira. Arte diziplina askotariko azoka edo jaialdien kasuan, antzerki programazio lerro osoa izan beharko dute. Azoka edo jaialdiaren webguneak ondorengoak izan beharko ditu gutxienez: antzezlanei eta taldeei buruzko informaziodun programazioa eta jaialdiari buruzko informazioa.

b) Espainiatik kanpo, arte eszenikoen alorrean programazio egonkorra duten antzokietan ari- tzea. Antzokiak 150 eserleku izan beharko ditu, edo bestela, prestigio handikoa izan beharko du. Antzokiaren prestigioa baloratzeko, ondorengoak hartuko dira kontuan: programazioaren antzi- natasuna, prestigiozko sariak jasotako taldeak programatzea, antzoki sare pribatu edo publikoen partaide izatea, erresidentzia erregimenean garatutako sorkuntza programak, publiko berriak sor- tzeko ekintza paraleloak, antzokiak jasotako sari edo errekonozimenduak.

Antzokiak kaleko emanaldiak antolatzen dituenean, ez da antzokiaren edukiera kontuan har- tuko.

Antzokiaren webguneak ondorengoak izan beharko ditu derrigorrez: antzezlanei eta taldeei buruzko informaziodun programazioa, antzokiari buruzko informazioa eta sarrerak on-line eros- teko zerbitzua.

c) Eusko Jaurlaritzak zuzenki edo zeharka babestutako honako erakustaldi-plataforma haue- tako batean parte hartu izanaren ondorioz sortutakoa izatea: Leioako Antzerki Azoka, Donostiako Antzerki Azoka, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia, Tarregako Antzerki Azokako Euskal Teatroa espazioa, Valladolideko Antzerki eta Kale Artearen Nazioarteko Jaialdiko Kaleartean pro- grama edo Lleidako Txotxongiloen Azoka.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, 3. artikuluan eza- rritako zenbateko osoa aldatu egin ahal izango da, baldin eta EEIren beste diru-laguntza deialdi batzuk esleitu ondoren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira. Aldaketa hori eskabideen gai- neko erabakia hartu aurretik egin beharko da. Adierazitako aldaketaren berri EEIren zuzendariaren ebazpenaren bidez eman beharko da.

Bigarrena.– Deialdi honetako dirulaguntzak ebatzi eta ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa izatera baldintzatuta daude.

Hirugarrena.– Ebazpen honetako laguntzak Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 araudian ezarritako «minimis» arauaren mende daude. Araudi hori Ituneko 87. eta 88. artikulua minimis –L 379/5, 2006-12-28– laguntzei aplikatzeari buruzkoa da (egun Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107 eta 108 artikulua). Arau horiei jarraiki, enpresa jakin bati emandako laguntza osoak ezin du izan berrehun mila (200.000) eurotik gorakoa edozein alditako hiru ekitaldi fiskaletan.

Laugarrena.– Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategi eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen babesean, ebazpen honen izapidetzea dela-eta EEIk eskuratuko dituen datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako; EEIk soilik erabiliko ditu, berak sustatutako diru-laguntzak kudeatzeko. Aipatutako lege horietan jasotzen den moduan, datuok ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko edo kontra egiteko eskubideak erabili ahal izango dira. Horretarako, idazki bat bidali beharko zaio Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari helbide honetara: Etxepare Euskal Institutua, Prim kalea 7, 20.006 Donostia.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke interesatuek EEIko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion aretoan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2013ko apirilaren 19a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
MARÍA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA.

I. ERANSKINA

ZABALKUNDEA: ARTE PLASTIKOAK ETA IKUSIZKOAK 2013

- I-I Diru-laguntzaren eskabidea.
- I-II Pertsona edo entitate eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa.
- I-III Datuen alta / doakion hirugarrena.
- I-IV Zinpeko adierazpenak, beste diru-laguntzak, «minimis» laguntzak.
- I-V Proiektuaren gaineko txostena.
- I-VI Aurrekontua eta justifikazioa.
- I-VII Justifikaziorako taula ereduak.
 - Dietak justifikatzeko taula.
 - Kilometrajea justifikatzeko taula.
- I-VIII Pertsona edo entitateari buruzko agirien ordezkio aitortpena.

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

I-I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA - ARTE PLASTIKO ETA IKUSIZKOAK 2013

ESKATZAILEA				
Pertsona fisiko edo juridikoaren izena				
NAN edo IFK		Kontu korrante zk.	____/ ____/ ____/ _____/	
Helbidea				
Posta-kodea		Herria		
Web				
Tel.			E. posta	
LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK (eskatzailea pertsona juridikoa bada)				
Izen-abizenak				
NAN / DNI				
KONTAKTURAKO ETA JAKINARAZPENERAKO DATUAK				
Izen-abizenak				
Helbidea				
Posta-kodea		Herria		
Tel.			E-posta	
BURUTU NAHI DEN JARDUERAREN IZENBURUA, EGUTEGIA ETA DESKRIBAPEN LABURRA				
<p>.....(e)n, 2013koren(e)(a)n.</p>				
Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura:				

I-II. ERANSKINA

PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

<p>1.– Eskabide orria sinatuta (I-I eranskina). Eskabide originala eta sinatua paperean entregatu behar da (1).</p> <p>2.– Pertsona edo entitateari buruzko agiriak Agiri hauek formatu digitalean (CD, DVD eta abar) entregatzea posible da, zinpeko adierazpenak ezik.</p> <p>A) Pertsona fisikoak baldin badira:</p> <p><input type="checkbox"/> NANaren fotokopia.</p> <p>B) Pertsona juridikoak baldin badira:</p> <p><input type="checkbox"/> Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria, ahalordetze agiriaren kopiaren bidez edo, hala badagokio, dagokion organoak egindako egiaztariaren bidez.</p> <p><input type="checkbox"/> IFZren fotokopia.</p> <p><input type="checkbox"/> Dagozkion erregistro publikoetan inskribatuak daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.</p> <p><input type="checkbox"/> Entitatearen eratze-agiria eta estatutuak.</p> <p>C) Pertsona fisiko nahiz juridikoak badira:</p> <p><input type="checkbox"/> A) eta B) ataletan eskatutako dokumentazioaren ordezeko aitortpena (2).</p> <p><input type="checkbox"/> Zerga-zorrak kitatuta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria (3).</p> <p><input type="checkbox"/> Gizarte Segurantzarekin egunean izatearen ziurtagiria (3).</p> <p><input type="checkbox"/> Ordainketarako dokumentazioa: I-III. eranskina. (Etxepare Euskal Institutuan sekula aurkeztu ez bada edo aurkeztutako datuak aldatu badira. Adierazi noiz aurkeztu zen eranskina).</p> <p><input type="checkbox"/> I-IV. eranskina: zinpeko aitortpenak, xede berberaz eskatutako beste diru-laguntzak eta «minimis» motako diru-laguntzak.</p> <p>3.– Jarduerari buruzko dokumentazioa (formatu digitalean: CD, DVD...).</p> <p><input type="checkbox"/> Jarduera edo proiektuaren gaineko txosten zehatza (I-V. eranskina).</p> <p><input type="checkbox"/> Aurrekontua (I-VI. eranskina).</p> <p><input type="checkbox"/> Jarduera burutuko dela ziurtatzen duen agiria, burutuko den tokiko kudeaketa-organismoak sinatua: kontratua, gonbidapena, ziurtagiria... Egoiliarren kasuan, egonaldiaren baldintza eta helburuak zehazten dituen agiria, egoiliar zentroko arduradunak sinatua (deialdiaren 18. artikulua).</p> <p><input type="checkbox"/> Pertsona eskatzailearen curriculum.</p> <p><input type="checkbox"/> Eskaria baloratzeko egokitzat jotzen den eta aurkeztu nahi den gainerako dokumentazioa.</p> <p>4.– Justifikazioa egiterakoan aurkezteko dokumentazioa.</p> <p><input type="checkbox"/> Eskabidean jarritako helburuen betetze maila eta ekintzaren garapena jasotzen duen memoria zehatza.</p> <p><input type="checkbox"/> Egindako gastu eta izandako sarreraren balantzea (I-VI. eranskinaren azken zutabea bete).</p> <p><input type="checkbox"/> Diruz lagundutako gastuen egiaztariaren zerrenda ordenatua eta burututako jarduera aurrera ateratzeko egindako gastuen faktura originalak edo konpultsatuak eskatzailearen izenean. Dietetarako, nahikoa izango da dieten justifikazioa bete eta onuradunak sinatuta aurkeztearekin (ikus I-VII. eranskineko taula).</p> <p><input type="checkbox"/> Diruz lagundutako jarduera dela eta sortutako materialen ale bana, euskarri fisiko nahiz magnetikoan, eta egin den hizkuntza guztietakoa.</p> <p><input type="checkbox"/> Jarduera burutu den tokiko kudeaketa-organismoarekin izandako kontratu-harremana adierazten duen agiria. Egoiliar proiektuen kasuan egoiliar zentroko arduradunak sinatutako egonaldi amaierako agiria.</p>
<p>(1) Eskabidea eta zinpeko adierazpenak izenpetzen dituenak eta eskaera egiten duenak pertsona bera izan beharko du, eta entitatearen legezko ordezkaria izan.</p>
<p>(2) A) eta B) ataletan eskatutako dokumentazioa jadanik Etxepare Euskal Institutuaren esku baldin badago ez da berriz ere aurkeztu behar [Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.f) atala]. Aitortpen bidez egiaztatu behar da dokumentazioa indarrean dagoela, eta EEIn noiz aurkeztu zen. Hori honako kasu hauetan bakar-bakarrik egingo da: dokumentazioari dagokion jardunbidea bukatu zenetik hiru urte baino gehiago pasatu ez badira. Ikus I-VIII. eranskina.</p>
<p>(3) Gehienez, eskabidea aurkeztu baino hiru hilabete lehenagokoa izan beharko du, horretarako eskumenak dituen erakundeak emana. Dena den, dokumentazio hori dela eta jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu onuradunak.</p>

I-III. ERANSKINA

DATUEN ALTA / DOAKION HIRUGARRENA

A	HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK
DNI/CIF
Bi abizenak eta izena / Sozietatearen izena
.....
Helbidea
Posta- kodea Herria
Lurraldea Herrialdea

B	BANKUAREN DATUAK
Bankua <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	Agentzia <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
KD <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	K/ korrontea <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
Jabea
OHARRA: kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.	

C	Bankuaren adostasuna
Sinadura eta zigilua	

D	Hirugarrenaren adostasuna
Sinadura eta zigilua	

E	EEIren onespena
Baimendutako sinadura eta zigilua	

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

I-IV. ERANSKINA

ZINPEKO ADIERAZPENAK

Izen-abizenak			
NAN zenbakia			
..... entitate / enpresaren legezko ordezkari gisa			
IFK			
neure ardurapean ADIERAZTEN DUT:			
<input type="checkbox"/> Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik, diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko, ezta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrena urratuz, sexu-diskriminazioa egiteagatik debeku horrekin zigortuta daudenak barne.			
<input type="checkbox"/> Eskatera honetan eta eranskinetan ageri diren datu guztiak eta erantsitako dokumentazioa egiazkoak direla.			
PROIEKTU BERERAKO ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ADIERAZPENA			
<input type="checkbox"/> Pertsona edo erakunde eskatzaileak EZ DU ESKATU xede berberaz beste diru-laguntzarik.			
<input type="checkbox"/> Pertsona edo erakunde eskatzaileak honako diru-laguntzak ESKATU DITU xede berberaz.			
Erakundea	Eskatutako diru-laguntza	Erantzunaren zain	Emandako laguntza
«MINIMIS» MOTAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ADIERAZPENA			
<input type="checkbox"/> Pertsona edo erakunde eskatzaileak azken hiru ekitaldi fiskaletan, EZ DU JASO «minimis» motako inolako laguntzarik.			
<input type="checkbox"/> Pertsona edo erakunde eskatzaileak azken hiru ekitaldi fiskaletan «minimis» motako laguntzak JASO DITU. Guztira jasotako laguntza eurokoa izan da ondorengo xehapenarekin.			
Urtea	Erakundea	Tramitazioa *	Zenbatekoa
GUZTIRA			
.....(e)n, 2013koren(e)(a)n.			
Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura:			

* E = Eskatua; EM = Eman; O = Ordaindua

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

I-V. ERANSKINA

PROIEKTUAREN GAINEKO TXOSTENA

ESKATZAILEA:	
PROIEKTUA:	
Artista edo taldea (1)	
Proiektuaren helburuaren sinopsia	
.....	
.....	
.....	
.....	
Burutuko den jardueraren azalpena	
.....	
.....	
.....	
.....	
Jarduera burutuko den espazioaren ezaugarriak	
.....	
.....	
.....	
.....	
Egutegia:	
Beste azalpenak:	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
.....	
(1)	Proiektuan artista edo talde batek baino gehiagok parte hartzen badu, bakoitzeko orri bana erabili

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

I-VI. ERANSKINA

AURREKONTUA ETA JUSTIFIKAZIOA (1) (2)

ESKATZAILEA:
PROIEKTUA:Aurreikusitako
aurrekontua

Bukaerako kostua

EUROTAN

EUROTAN

GASTUAK

1.1. ETXEPAREK LAGUNTZEN DITUEN KONTZEPTUAK (4)

Ostatu gastuak

Dietak

Joan-etorria

Material garraioa

Muntaia gastuak

Guztira 1.1

1.2. BESTE GASTUAK (zehaztu)

.....

.....

.....

.....

Guztira 1.2

1. GASTUAK GUZTIRA

DIRU-SARRERAK

2.1 Eskatzailearen ekarpena

2.2 Ente publikoen ekarpena

Etxepare Euskal Institutuari eskatutako diru-laguntza

2.3 Ente pribatuen ekarpena

.....

.....

2. DIRU-SARRERAK GUZTIRA

GUZTIRA (GASTUAK - SARRERAK GUZTIRA = 0)

1. GASTUAK GUZTIRA

2. DIRU-SARRERAK GUZTIRA

- (1) Bestelako monetatan egindako fakturen kasuan, gastua eurotan zenbatekoa izan den adierazi beharko da, horretarako erabilitako kanbio-tasa adieraziz.
- (2) Eskatzaileari diru-gasturik ez dakarkioten lan-, material-, espazio- edo bestelako trukaketak (ez dago fakturarik eskatzailearen izenean) jakinarazi daitezke baina ez dira guztizko gastuetan sartuko.
- (3) Justifikazioa egiten denean azken kostu errealarekin bete.
- (4) Zehaztu nola kalkulatu diren.

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

I-VII. ERANSKINA
DIETAK JUSTIFIKATZEKO TAULA

DIETAK (1)						
Izen-abizenak	NAN zk.	Eginkizuna jardueran	Lekua	Egun kopurua / datak	Dieta	Guztira
GUZTIRA						
<p>(1) Azken justifikazioak egitean betetzeko. Gehienez 42 euro eguneko estatuan eta 63 euro atzerrian. Erakusketen kasuan, solik joan-etorriko eta muntaia eta inauguraziorako dietak onartuko dira, astebetekoak gehienez.</p> <p>.....(e)n, 2013ko..... ren(e)(a)n.</p>						
Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura:						

KILOMETRAJEA JUSTIFIKATZEKO TAULA

KILOMETRAJEA				
Bidaiaren azalpena	Data	Ibilbidea (1)	Km kopurua	Ibilgailu mota (2)
GUZTIRA				
<p>(1) Diru-laguntza eskaera egin duen pertsona fisiko edo juridiko pribatuaren sozietate egoitza hartuko da abiapuntutzat. Emanaldiak denboran jarraian badira, emanaldi tokitik hurrengo emanaldiaren tokirainoko distantzia ere kontuan hartuko da.</p> <p>(2) Automobila erabiliz gero, 0,29 euro km-ko. Furgoneta erabiliz gero, 0,40 euro km-ko</p> <p>.....(e)n, 2013ko..... ren(e)(a)n.</p>				
Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura:				

I-VIII. ERANSKINA

PERTSONA EDO ENTITATEARI BURUZKO AGIRIEN ORDEZKO AITORPENA

PERTSONA EDO ENTITATEARI BURUZKO AGIRIEN ORDEZKO AITORPENA
<p>Nik, nire izenean edo, entitatearen ordezkari legala naizen aldetik, hauxe ADIERAZTEN DUT:</p> <p>I-II. eranskinean A) eta B) ataletan eskatzaileari buruz eskatzen diren agiriak Etxepare Euskal Institutuaren esku daudela, eta dokumentazio hori indarrean dagoela, bertan aurkeztu baitzen 201ko (ren) (n), alorreko dirulaguntza deialdiaren barruan.</p> <p>.....(e)n, 2013koren(e)(a)n.</p> <p>Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura:</p>

II. ERANSKINA

ZABALKUNDEA: MUSIKA 2013

- II-I Diru-laguntzaren eskabidea.
- II-II Pertsona edo entitate eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa.
- II-III Datuen alta / doakion hirugarrena.
- II-IV Zinpeko adierazpenak, beste diru-laguntzak, "minimis" laguntzak.
- II-V Musika birak: proiektuari buruzko txostena.
- II-VI Aurrekontua eta justifikazioa.
- II-VII Musika birari buruzko datuak.
- II-VIII Proiektuan parte hartzen duen taldearen oinarritzko datuak.
- II-IX Justifikaziorako taula ereduak.
 - Dietak justifikatzeko taula.
 - Kilometrajea justifikatzeko taula.
- II-X Pertsona edo entitateari buruzko agirien ordezeko aitortpena.

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

II-I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA - ZABALKUNDEA: MUSIKA 2013

ESKATZAILEA				
Pertsona fisiko edo juridikoaren izena				
NAN edo IFK		Kontu korrante zk.	____ / ____ / ____ / _____ /	
Helbidea				
Posta-kodea		Herria		
Web				
Tel.			E-posta	
LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK (eskatzailea pertsona juridikoa bada)				
Izen-abizenak				
NAN / DNI				
KONTAKTURAKO ETA JAKINARAZPENARAKO DATUAK				
Izen-abizenak				
Helbidea				
Posta-kodea		Herria		
Tel.			E-posta	
BURUTU NAHI DEN JARDUERAREN IZENBURUA, EGUTEGIA eta DESKRIBAPEN LABURRA				
<p style="text-align: center;">.....(e)n, 2013koren(e)(a)n.</p> <p>Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura:</p>				

II-II. ERANSKINA

PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- Eskabide orria sinatuta (II-I. eranskina). Eskabide originala sinatuta eta paperean entregatu behar da (1).

2.- Pertsona edo entitateari buruzko agiriak Agiri hauek formatu digitalean (CD, DVD eta abar) entregatzea posible da, zinpeko adierazpenak ezik.

A) Pertsona fisikoak baldin badira:

NANaren fotokopia.

B) Pertsona juridikoak baldin badira:

Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria, ahalordetze agiriaren kopiaren bidez edo, hala badagokio, dagokion organoak egindako egiaztagiaren bidez.

IFZren fotokopia.

Dagozkion erregistro publikoetan inskribatuak daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Entitatearen eratze-agiria eta estatutuak.

C) Pertsona fisiko nahiz juridikoak badira:

A) eta B) ataletan eskatutako dokumentazioaren ordezeko aitortpena (2).

Zerga-zorrrak kitatuta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria (3).

Gizarte Segurantzarekin egunean izatearen ziurtagiria (3).

Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan musika jarduerari dagokion epigrafe batean alta izatea ziurtatzen duen agiria.

Ordainketarako dokumentazioa: II-III. eranskina (Etxepare Euskal Institutuan sekula aurkeztu ez bada edo aurkeztutako datuak aldatu badira. Adierazi noiz aurkeztu den).

II-IV. eranskina: zinpeko aitortpenak, xede berberaz eskatutako beste diru-laguntzak eta «minimis» motako diru-laguntzak.

3.- Jarduerari buruzko dokumentazioa. Formatu digitalean (CD, DVD eta abar).

Jardueraren gaineko txosten zehatza (II-V. eranskina).

Aurrekontua (II-VI. eranskina).

Musika birari buruzko datuak (II-VII. eranskina).

Proiektuan parte hartzen duen taldearen oinarrizko datuak (II-VIII. eranskina).

Kontzertuak burutuko direla ziurtatzen duten agiriak, burutuko diren tokietako kudeaketa-organoei sinatuta: kontratua, gonbidapena, ziurtagiria...

Eskaria baloratzeko egokitzat jotzen den eta aurkeztu nahi den gainerako dokumentazioa.

4.- Justifikazioa egiterakoan aurkezteko dokumentazioa.

Eskabidean adierazitako helburuen betetze maila eta jardueraren garapena jasotzen duen memoria zehatza.

Egindako gastu eta izandako sarreraren balantzea (II-VI. eranskinaren azken zutabea bete).

Diruz lagundutako gastuen egiaztagiaren zerrenda ordenatua eta burututako jarduera aurrera ateratzeko egindako gastuen ordainagiri originalak edo konpultsatuak. Dietetarako nahikoa izango da II-IX. eranskineko taula osatu eta sinatzea.

Diruz lagundutako jarduera dela eta sortutako materialen ale bana, euskarri fisiko nahiz magnetikoan, eta egin den hizkuntza guztietakoa.

Birako kontzertuak burutu diren tokietako kudeaketa-organoei izandako kontratu-harremana adierazten duten agiriak.

(1) Eskabidea eta zinpeko adierazpenak izenpetzen dituenak eta eskaera egiten duenak pertsona bera izan beharko du, eta entitatearen legezko ordezkaria izan.

(2) A) eta B) ataletan eskatutako dokumentazioa jadanik Etxepare Euskal Institutuaren esku baldin badago ez da berriz ere aurkeztu behar [Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.f) atala]. Aitortpen bidez egiaztatu behar da dokumentazioa indarrean dagoela, eta EEIn noiz aurkeztu zen. Hori honako kasu hauetan bakar-bakarrik egingo da: dokumentazioari dagokion jardunbidea bukatu zenetik hiru urte baino gehiago pasatu ez badira. Ikus II-X. eranskina

(3) Gehienez, eskabidea aurkeztu baino hiru hilabete lehenagokoa izan beharko du, horretarako eskumenak dituen erakundeak emana. Dena den, dokumentazio hori dela eta jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu onuradunak.

2013ko maiatzaren 6a, astelehena

II-III. ERANSKINA

DATUEN ALTA / DOAKION HIRUGARRENA

